Bidean atzera

Usoa Iriberri Zubiola

Gipuzkoan jaioa, 1979an

Gipuzkoan bertan adoptatua

Ilustrazioak: Enara Nieto Iriberri

2023ko ostiral eguzkitsu bat zen. Urduri nenbilen kalean gora eta behera. Sekula amesteko ere eskubiderik izan ez nuen topaketa baten zain nengoen. Gorputz guztia dar-dar. Pentsamenduak gogoan nahas-mahas pilaturik.

Nor eta ni, beti dena kontrolpean izaten dudan hau, noraezean nenbilen, ziurgabetasunaren mende. Nire gizarte-langileak den-denerako prestatua ninduen, salbu eta galdera honetarako: nola esaten zaio kaixo ama biologikoari?

Hortxe zebilen nire antsietatea, modu konpultsiboan bueltaka, nola jokatu ezin erabaki: eskua estutu, lan-giroan bageunde bezala? Bi musu eman, norbait ezagutzean egin ohi den bezala? Besarkatu, azken batean "nire ama" zela kontuan hartuta? Urrutitik agurtu eta harengandik bi metrora gelditu, onik eta salbu…?



Ziztuan nenbilen paseoan, helmugarik gabeko maratoilari baten gisan, harik eta, bat-batean, hark ostatu hartua zuen eraikineko atea ireki zen arte. Eta hantxe irten zen. Haren argazkiren bat ikusia nuen arren, ez zen arraroa izango duda egitea, baina berehala ezagutu nuen. Ez zegoen zalantzarik.

Nire aringarri, irribarrez hurbildu zitzaidan. Besoak zabaldu, eta esan zidan:

–Azkenean badut modua inoiz eman ezin izan nizun besarkada emateko.

Elkar besarkatu genuen, eta arratsalde hartan sentitu nuen, azkenean, nire ispiluko arrakalak konpontzen hasiak zirela.

Bide luze eta estugarri baten emaitza izan zen topaketa hura: nire nortasuna zein den jakiteko bidearen emaitza, hain zuzen. 42 urtez, tabu eskerga baten itzalpean eta isilpean bizi izan nintzen. Sekula ez nuen sentitu baimena neukanik bidean atzera egin eta jaio nintzen lekura itzultzeko. Izan ere, nire gurasoek, familian normaltasunari eusteko ahalegin alferrekoan, ia dena isilpean gordetzea erabaki zuten. Ez erabat, bost urte nituela kontatu baitzidaten adoptatua nintzela; baina, gerora, sekula ez genuen berriz horretaz hitz egin, eta, hala, arrakala bat zabaldu zen, sekula itxiko ez zena. Gurasoak, izan biologikoak izan adopziokoak, beti saiatzen dira seme-alabek sufri ez dezaten, eta, garai hartan, normalena horixe zen, isilik egotea, egoera normalizatzeko. “Gaiaz hitz egin ezean, gaia ez da existitzen”: uste hori zegoen zabalduta 70eko eta 80ko hamarkadetako gurasoen artean.



Lotsatuta nengoen adoptatua nintzelako. Beti iruditzen zitzaidan besteengandik ezberdina nintzela. Orain badakit sentipen haiek ez zirela gaztaroko apeta hutsa, ezta errebeldia-apeta hutsa ere: benetako oztopoa izan ziren nire bizitzan, eta ez zidaten uzten libre aurrera egiten. Batzuetan, neure artean galdetzen dut beste senideei sekula bururatu ote zitzaien beharbada beharra izan nezakeela nire adopzioaz hitz egiteko, nire sentimenduez, identitate bat izateko neukan irrikaz.

Orain, galdetzen didatenean noiz hasi nintzen bila, erantzun ohi dut oso aspaldi hasi nintzela: hain justu adopzioari buruzko liburuak irakurtzen eta gai horren inguruko filmak ikusten hasi nintzenean, herabe. Gurasoekin bizitzeari utzi nion arte ez nintzen ausartu horretara, haiek ezin baitziren izan nire zaletasun sekretu haren lekuko. Alde batetik, lotsa ematen zidan, eta, bestetik, leialtasun-gatazka sakon bat ere eragiten zidan. Azken batean,

inguruko asko jo eta su ibiltzen zitzaizkidan gogorarazten zer-nolako zortea izan nuen halako guraso zoragarriek adoptatu nindutelako, eta eransten zuten “esker ona” erakutsi behar nuela.

Sekretismoa



2008ko uda zen. Hilabete gutxi barru ezkontzekoa nintzen, eta agiri jakin batzuk behar nituen. Aitari eskatu nion jaiotze-agiri literala eskatzeko epaitegian. Bi ekarri zizkidan: batean, nire lehen izena ageri zen, eta bigarrenean, gaur egungoa. Orduantxe jakin nuen zer izen jarri zidaten jaiotzean.

Mercedes nuen izena.

Seguruena, funtzionarioren batek jarri zidan izen hura, edo apaizen batek, edo ospitaleko gizarte-laguntzaileren batek. Baina, hala eta guztiz ere, garrantzitsua zen. Neurea zen. Nire jaiotza-aztarna bakarra. Nik ez baineukan ez jaio nintzeneko argazkien albumik, ez bataiorik. Nire jaiotza ezabatu balute bezala zen. Egun hartan, paper haren aurrean, gutxienez jakin nuen izan nuela izen bat. Agiria poltsan gorde, eta ez nuen ezer galdetu. Azken batean, isilik egoteko hezia ninduten.



Handik urtebetera, gure alaba zaharrena jaio zen. Nire odoleko norbait, azkenean. Nire antza zuen pertsonatxo bat. Zeharo izutzen ninduen ni hil eta hura amarik gabe uzteak. Gerora jakin nuen ohikoa dela beldur hori, baina garai hartan paralizatu egiten ninduen. Benetan laborrituta egon nintzen.

Handik urte eta erdira, 2011n, aita hil zitzaidan, bat-batean. Min izugarria. Eta, ustekabean, min hark berriz ere gogorarazi zidan adoptatua nintzela, eta ahanzturatik atzera ekarri zidan galdera eternal hura, egiteko baimenik ez nuena: nor nintzen ni?

Orduan ere, ordea, besteak zaintzea zen nire egitekoa. Ama zulotik ateratzea. Familia babestea. Eta, hala, berriz ere lurperatuta geratu zen nire galdera.

Handik hilabete batzuetara, gure bigarren alaba jaio zen. Berriz ere agertu zen nire min primario harekiko lotura, baina orduan ere ez nuen izan ez denborarik eta ez baimenik hura sentitzeko. Eta galderak hegan alde egin zuen berriro.

Urteak joan ziren. Behin, familiako tramite batzuk zirela medio, familia-liburua bilatu behar izan nuen. Armairu hartan aurkitu nuen, nire adopzio-paperen ondoan. Armairu hark isil-isilik zirauen familiako tabuaren menpean, eta bitartean, nire identitatea, 42 urtez, beti hain gertu eta aldi berean hain eskuraezin.

Fraisoron izan nintzela jakitea, horixe izan zen niretzat txundigarriena. Fraisoroko Etxea ongintza-erakunde bat izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean haur abandonatuak hartzekoa. Bada, han eman nuen, antza, nire bizitzako lehen hilabetea. Tristura sakon batek hartu ninduen



neure burua hantxe imajinatu nuenean, haurtxo bat amaren berorik gabe, behin-behineko sehaska batean, leku hotz eta inpertsonal hartan.

Nire lehen erreakzioa senarrari deitzea izan zen. Hura izan nuen abentura honetako lehen aliatua. Gero, Googlen "Fraisoro" idatzi, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artikulu bat aurkitu nuen, norberaren jatorriaren berri izateko eskubideari buruzkoa. Eta ez nuen dudarik egin: biharamunean deitu, eta eskatu nien bila zezatela nire espedientea.

Espedientea azkenean ikusi eta ukitu ahal izan nuen egunean, kutxa zahar bat ireki eta altxor bat aurkitu banu bezala sentitu nintzen. Hortik aurrera, nire jatorriaren berri izateko prestalan luze bat hasi zen. Lehen aldiz, leku seguru bat eduki nuen kulparik gabe eta besteren epaien eta minaren beldurrik gabe hitz egiteko bai nire abandonuaz eta bai nire adopzioaz.

Irudikapenak

Nire ama biologikoa irudikatzen hasi nintzen. Autobusean eta trenean ikusten nituen emakumeen aurpegia jartzen saiatzen nintzaion. Moja zela irudikatzen nuen, edo gaizkilea, edo etxegabea. Baina burura gehien etortzen zitzaidan irudikapena zera zen: hegoaldetik jauntxo baten etxera lanera etorritako neska gazte batena.

Egun batean, jakin genuen nire ama biologikoa bizirik zegoela, eta beste erkidego batean bizi zela, eta hari gutun bat idaztea eskaini zidaten. Halaxe egin nuen. Eta zain geratu. Zenbait hilabete pasatu ziren, baina, halako batean, gizarte-langile batek deitu zidan, esanez erantzun zuela. Gaur egun, miresten dut nire ama biologikoak hartarako ausardia eduki izana, haren bizi guztian nire existentziaren inguruan nagusi izan bide zen isiltasuna gainditua.

Haren gutunaren bidez, zenbat urte zituen jakin nuen, eta baita beste hiru alaba zituela ere. Haien izenak aipatu zizkidan. Erantzun egin nion,

eta mezuari lau argazki erantsi. Hark berriz idatzi zidan. Baina, gero, isiltasuna. Eta Gabonak.

Abenduaren 24an, Gabon gaueko afaria prestatzen ari nintzela, Facebookeko mezu bat iritsi zitzaidan, neska batena: nire amak gutunean aipatuak zizkidan ahizpa haietako bat zen. Antza, nire bila aritua zen gogoz eta ekinez, eta aurkitua ninduen azkenean; hortaz, idaztea erabaki zuen, protokoloari muzin eginda, bere erkidegoko isiltasun administratiboa gorabehera.



Haren mezua irakurtzean, bi sentipen kontrajarri izan nituen: batetik, poza, ahizpa bat edukitzeko aukera nuelako, eta, bestetik, tristura, ordura arte elkarrekin bizi izan ez genuen guztiagatik. Erantzutea erabaki nuen. Batzuetan, norberaren sentipena protokolo guztien gainetik dago.

Hortik aurrera, elkarri argazkiak bidaltzen hasi ginen, eta elkarri deitzen, eta elkarrekin negar eta barre egiten. Egu-berri haietako oparirik handiena izan zen ahizpa. Eta, gero, beste bi ahizpak ere iritsi ziren. Aurrerago jakin nuen haietako bat ere adoptatua izateko utzia zutela. Hark ere bere bilaketa egina zuen urte batzuk lehenago, bitartekaririk gabe, sare sozialen bidez.

Prozesu luzea izan zen. Bidaiak, emozio biziak, nekea…. Baina merezi izan zuen. Gaur, esker onez gaude elkar aurkitzeko bigarren aukera hau eduki dugulako, distantziak distantzia.

Prozesuan, informazio nahasi samarra jaso nuen ama biologikoarengandik. Traumagatik agian, edo denbora luzea joana zelako, edo lotsagatik. Eta, nahiz eta jakin hori dena ohikoa dela, min egiten du. Angustia eragiten du, eta amorrua.

Behin, adibidez, kontatu zidan nire aita biologikoa hila zela, eta hori izan zen gauzarik mingarrienetako bat. Baina azkenean ez zen egia: informazio okerra emana zioten. Aita bizirik zegoen. Eta, nire ahizpen laguntzaz, haren helbide elektronikoa lortu genuen.

2024ko urtarrilean jarri nintzen harekin harremanetan, posta elektronikoz. Eta, berriz ere, zortea izan nuen: hark ere jakin nahi zuen nire berri. Bi seme zituen, eta alaba bat. Bizitza, beraz, beste hiru anai-arreba ematen ari zitzaidan opari. Are, handik denbora batera, haietako baten ezkontzara ere joan nintzen nire familiarekin.

Bide luzea izan da. Duela urte asko hasi zen, baina azken txanpa laguntza profesionalak, heldutasunak eta eskarmentuak egin zuten posible. Izan ere, badakit hogei urterekin ez nintzela gai izango bide hau egiteko.

Alaba bakarra izanik, beti izan nuen amets anai-arrebak izatea. Haiek denak, gazteenetik hasi eta zaharreneraino, opari zoragarria izan dira. Nahiko nuke aukera eduki izan banu haiekin arratsaldeak jolasean emateko, haiekin bidaiatzeko, edo bihurrikerietan ibiltzeko. Egia esan, gustatuko litzaidake elkarrengandik gertuago biziko bagina, egunerokoan noiznahi haiekin egon ahal izateko. Baina, beste behin ere, gertaerak datozen bezalaxe onartu behar ditugu, eta bizitzak oparitzen dizkigun topaketa xume horiek aprobetxatu.



Tabuak hautsita

Jakin eta aurkitu nuenaren berri eman ahal izan nion nire adopzio-familiari, bereziki amari. Horixe izan zen zailena: ia mende erdiko tabua haustea. Badakit hark esfortzu handia egin duela, bere familiaren intimitatean soilik izan bada ere. Joan den mendeko sinesmenak ez dira hain erraz erauzten. Dena den, beti izango dut gogoan ausartu zela nire anai-arrebak eta nire guraso biologikoak ezagutzera; prozesu honen hasieran pentsaezina izango zen hori.

Bilaketa hark arindu egin zidan gainean neraman zama. Ulertzen ikasi nuen, barkatzen, eta eskertzen. Baina hori ez da goizetik gauera lortzen; ezinbestekoa da entzutea, zenbait istorio barneratzea, sentimendu argitsuak eta ilunak besarkatzea, eta baita zeure istorioa eraikitzea ere, batzuetan

perfektuak ez diren Lego piezen gainean. Bakoitzak, istorio honetan, bere egia du, bere oroitzapenak, gogoratzeko eta iragana berritzeko bere modua. Horrek denak indartsuago egin ninduen. Izan nintzen neskatila hura maitatzen eta miresten ikasi nuen. Sekretua hautsi eta iraganera begiratzeak, mingarria izan arren, indartu egiten gaitu. Ez baikara oraina soilik: iragana eta etorkizuna ere bagara. Eta hirurak besarkatzea merezi dugu.

Gaur egun, oraindik ere harremanetan nago nire iraganeko eta nire orainaldi berri honetako pertsona berri horiekin guztiekin. Batzuekin lotura estuagoa dut, normala den bezala. Baina garrantzitsuena da orain denok dakigula bestea existitzen dela, eta urrun bizi izanda ere hortxe egongo garela bata bestearentzat aurrerantzean ere. Zera besterik ezin dut esan: denekin oso eskertuta nagoela nire jatorriranzko bidaia honetan bidaide izateko egin duten ekarpenagatik, izan ekarpen hori handixeagoa edo txikixeagoa.

